

ELKAREKIN

KOSTUAK:

Gure enpresa aurrera eramateko zenbait kostu izango ditugu.

Kostu Finkoak:

- **Langileen soldata:** Gure enpresan izango ditugun langile bakarrak koordinatzaileak izango lirateke. Bost koordinatzaile izango dira eta bakoitzari 1.300€ soldata ordainduko diegu.
- **Erantzukizun zibileko aseguria eta administrazio gastuak:** Erantzukizun zibileko aseguria hirugarrenei eragindako kalteak estaliko ditu (jardueran zehar norbaitek min hartzeko bada edo ikastetxeko materiala kaltetzen bada). Gainera, kontuan izanda ikastetxe askok nahitaez eskatzen dutela, oso garrantzitsua da bat eukitzea. Bestalde, administrazio gastuak lege- eta ekonomia-kudeaketarekin lotutako gastuak izango dira.
- **Tresnak:** Gure enpresak egingo duen taller bat, etxeko gauza txikiak konpontzeko tailerra izango da eta horretarako zenbait tresnak beharko ditugu. Hori dela eta, kit bat erosiko dugu bost pertsonentzat, beraz, guztira hogeita hamar tresna-kit erosiko genituzke.
- **Mahai jolasak:** Beste tailer batean, nagusiak eta gazteak denbora emango dute mahai-jokoetan jolasteko. Horretarako joko desberdinak erosiko ditugu: bingo bat, karta sorta espainiarra, monopoly-a, besteak beste.
- **Ordenagailuak:** Gure enpresa aurrera eramateko bakoitzak ordenagailu bat izango dugu, beraz, bost ordenagailu erostez gain, bakoitzaren gastuak ordainduko ditugu.
- **Telefonoa / Wifi-a:** Ordenagailuaz gain, bakoitzak gure mugikorra izango dugu. Beraz, gure gastuen barruan bai telefonoaren gastuak, bai wifi-arena izango ditugu. Gainera, Euskaltel konpainia erabiltzea erabaki dugu.
- **Publizitatea:** Gure enpresaren publizitatea egiteko bi baliabide erabiliko ditugu. Alde batetik, sare sozialak Instagram, Tik Tok eta Facebook, batez ere. Bestetik, kartelak kaleetatik jarriko ditugu, beraz, pentsatu dugu 400 kartel inguru imprimatzea eta horiek hiru hirietatik banatzea. Gainera, aurreikusita daukagu 1,50€ gastatzea kartel bakoitzarako.

Kostu Alkorrak:

- **Josteko materiala:** Gure enpresak egingo duen beste tailer bat jostea izango da, beraz, pertsona bakoitzeko bost inguru gastatzea pentsatu dugu, haria eta josteko beste material batzuk erosteko.

- **Sukaldatzeko osagaiak:** Beste tailerra sukaldatzea izango da. Sukaldatzeko osagaiak janariaren arabera asko aldatu ahal badira ere, pertsona bakoitzeko 10€ ordainduko ditugula aurreikusten dugu.

KOSTU FINKOAK			
KONTZEPTUA	HILABETEA	URTEA	GUZTIRA
ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA	40€	480€	480€
ADMINISTRAZIO GASTUAK	80€	960€	960€
SOLDATAK (5)	6.500€	78.000€	78.000€
TRESNAK	2500€	30.000€	30.000€ (ordainketa bakarra)
MAHAI JOLASAK	33€	400€	400€
ORDENAGAILUAK (5)	125€	1500€	1500€ (ordainketa bakarra)
ORDENAGAILUAK GASTUAK (5)	125€	1500€	1500€
WIFI-A	50€	600€	600€
TELEFONOA GASTUAK (5) (EUSKALTEL)	80€	960€	960€
PUBLIZITATEA	125€	1500€	1500€ (ordainketa bakarra)
KOSTU ALDAKORRAK			
KONTZEPTUA	ERABILTZAILE	KAU	GUZTIRA
JOSTEKO MATERIALA	3000	5€	15.000€
SUKALDATZEKO OSAGIAK (Janariaren arabera)	3000	10€	30.000€
KOSTUAK GUZTIRA			
KOSTU FINKOAK	KOSTU	GUZTIRA	

	ALDAKORRAK		
115.900€	45.000€	<u>160.900€</u>	